



Arartekoaren ebazpena, 2010eko ekainaren 16koa. Horren bidez, Bilboko Udalari iradokitzen zaio Bilbon abandonatuta dauden txakurrak eta katuak jasotzeko udal zerbitzua hobetzeko zenbait neurri kontuan har ditzala.

Aurrekariak

1. (...) elkarteak erakunde honetara jo zuen Bilbon abandonatuta dauden txakurrak eta katuak jasotzeko zerbitzuaren udal kudeaketaren ondotik agerian jarritako zenbait konturen berri emateko.

Elkarte horrek esan zigun kezkatuta zegoela, haren ustez, udalerrian edo inguruan bizi diren pertsonak animaliak adoptatu ahal izateko dauden arazoengatik. Kontu horien artean adierazi zuen Basurton dagoen txakurren udal zentroak mugatutako irekiera ordutegia zuela eta ezin zela zentroko geletara sartu animaliak in situ ikusteko. Muga horien bidez, teknologia berrien erabilera –adibidez, internet- sustatzen da, hain zuzen, animaliak ikusi eta adoptatu ahal izateko.

Hori dela eta, elkarteak uste du udal bulegoetan jasotako txakur eta katu kopurua handia dela. Animalia horiek adopzioan Europako beste herrialde batzuei (nagusiki, Alemania, Suitza eta Herbehereak) ematen zaizkie.

Txakurrak eta katuak atzerrian adopzioan emateko jarraitutako prozedurari buruzko informazioa edukitze aldera, elkarteak Bilboko Udalari behin baino gehiagotan eskatu dio Txakurren Udal Zerbitzuko erregistro-libururako sarbidea edukitzeko, 2005. urteaz geroztik animalien sarrerak eta irteerak kontsultatzeko.

Abandonatutako katuei dagokienez, elkarteak esterilizatutako katuen kolonien programaren beharra defendatu du, Bilbon animalien izatea eta babesa arautzen duen ordenantzako 10.4. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Era berean, pertsonen betebeharren inguruan informatzeko –beren animaliei, identifikazioari dagokionez- eta abandonua saihesteko, erakunde kanpainak hasteko beharra aipatu dute.

2. Elkarteak Bilboko Udalari kontu horien guztien berri eman dio idazki batean. Bertan, gainera, atzerrian adoptatutako animalien agiriak erakusteko eskatu zuen, baita Bilbon bizi diren adoptatuen lehentasuna ere. Udalak emandako erantzunean txakurren zerbitzuko agiriak erakusteko eskaera ez zen onartu, erakutsiz gero hirugarrenen intimitatea eragin dezakeela ulertzeagatik. Izan ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 37.2. eta 3. **artikuluarekin bat, izendapen datutzat jotzen dira.** Horrez gain, udalaren ustez, ez da egokia





abandonatutako animalien adopzioa onartzeko Bilbon bizi direnen lehentasuna barne hartzea.

Erantzun hori aintzat hartuta, elkarteak Arartekoan kexa-erreklamazioa aurkeztu du eta esan digu ez dagoela ados animaliak jaso eta zaintzeko zerbitzuaren udal funtzionamenduarekin, azaldutako arrazoiengatik, hain zuzen. Bereziki, aipatu du eskatutako agiriak ikusteko aukera daukala, animaliak defendatu eta sustatzeko interesduna den aldetik, 30/1992 Legearen 31. artikuluari dagokionez 37.3. artikularen arabera.

3. Erreklamazio horri dagokion izapidea emate aldera, animaliak jasotzeko udal zentroko erregistroko sarbidea edukitzeari buruzko eta pertsonen intimitateari eragin ahal dien datu zehatzei buruzko informazioa eskatu genion udalari. Baita, izendapen datu zehatzak eskuratzeko, elkarteak interesduna dela egiaztatzei buruzkoa edo, hala badagokio, hertsiki isilpekoak diren datuen alde aurretiko banantzearekin erregistroan sarbidea izateko aukerari buruzkoa ere.

Horrez gain, udal zentroaren bidez animaliak adoptatzeko jarraitutako prozedurari eta barrutira sartzeko elkarteak alegatzen dituen zailtasunei buruzko informazioa eskatu genuen. Halaber, ordenantzaren arabera, Bilbon katuen kolonia ezartzeko aukeraren berri eman genuen.

4. Osasun eta Kontsumo Arloko zuzendariak txosten bat bidali digu, elkartearekin etengabe izan duen harremanaren berri emateko, eta atzerrian egiten diren adopzioen datuak emateko. Hala, txostenean adierazi du atzerriko adopzio guztietan udalak indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen betekizun guztiak errespetatu dituela (osasun kartila, animalien pasaportea, txertoen kartila). Era berean, administrazio erregistro ofizialean emandako kasuan kasuko altak eta bajak berretsi ditu.

Udal zerbitzuaren erregistroko datuak ikusteko aukerari dagokionez, esan du animaliei buruzko datuak eta horien jabeen identifikazio-datuak eta datu pertsonalak jasota daudela. 30/1992 Legearen edukia gorabehera, intimitaterako eskubidea eta udal erregistroan jasota dauden datuen konfidentzialtasuna nagusitu behar dira. Nolanahi ere, animalien identifikaziorako erregistro orokorra (AIEO) Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako Sailaren eskumena da, eta erakunde horri legokioke erregistroan dauden datuetara sartzeko baimena ematea.

Horrez gain, animaliak jasotzeko zerbitzuaren antolamenduari buruzko gogoetak aipatu ditu. Jendearentzat zabalik 11etik 13etara egongo da, hain zuzen, animaliak zaintzeko zerbitzuaren beharreatatik eta beharrezkoak ez diren eragozpenak saihesteko. Udal langileak bakarrik sar daitezke animaliak





dauden gunetara. Hori, hala ere, ez da traba bat erabiltzaileek ikusi nahi dituztela esaten dutenean ikus ditzaten.

Horren ildotik, udalak ez du aintzat hartu gure inguruko pertsonen animaliak adopta ditzaten lehentasunezko eskubidea ezartzeko aukera. Izan ere, kopuruei begiratuta, ondorioztatu da Bilbon bizi den jende askok adoptatzen dituztela animaliak.

Aurrekari horiek guztiak ikusirik, egokia iruditu zaigu aipatu kexa-espeditenteari buruzko zenbait gogoeta zuri helaraztea, zehazki, erreklamazioak hizpide duen gaiari dagokionez:

Gogoetak

1. Abandonatutako animaliak jasotzeko udal zentroaren kudeaketako alderdi batzuk eta animalia horien adopzioa sustatzeko jarraitutako prozedura ditu hizpide erreklamazioak.

Elkarte horrek udalean egindako erreklamazioak eta eskaerak barne hartutako alderdiak zein izan diren aipatu behar da, horiek guztiak banaka jorratu ahal izateko.

Horren harira, erreklamazioak honako hau du hizpide: Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan bizi diren pertsonen animaliak adoptatzen dituztenean, egoera horrek dakartzan arazoak, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi direnen sarbidea ahalbidetzeko proposamena eta animalien sarrerak eta irteerak biltzen dituen udal erregistroko sarbidea.

Bigarren gaiak abandonatutako animaliak, katuen koloniak kontrolatzen lagunduko duten zenbait neurri hartzeko beharra edo abandonuak saihesteko animalien jabeen sentsibilizazioa jorratu ditu.

2. Bilboko Udalak bidalitako informazioak agerian jarri du abandonatutako animaliak jaso eta adopzioan emateko zerbitzuaren funtzionamendua zein den. Udalak abandonatutako animaliak daudela jakinarazteko prozedura ezarri du, animaliak jasotzeko zentrorako sarbidearen bitartez edo teknologia berriak erabiliz.

Udalak autoantolatze eta zerbitzuak emateko gaitasuna dauka, bere esku dituen baliabide pertsonalei eta aurrekontu baliabideei jarraiki. Langileek animaliak adoptatzeko zerbitzua eman behar dutenez eta jasotzeko, zaintzeko... zerbitzuak ere eman behar direnez, udal bulegoetara joateko ordutegia dago. Nolanahi ere, badira beste baliabide batzuk zentroan jasotako animaliak ezagutzeko, hala nola, web orrialdea. Zerbitzua behar





bezala emate aldera eta zaindutako animaliei eragozpenak saiheste aldera animalien zainketarako instalazioetarako sarbidea justifikatuta dago, animaliak ematen diren unean izan ezik.

Horri dagokionez, esan behar dugu egungo zerbitzuak interesdunak sar daitezzen aukera ematen duela. Udalak emandako datua, alegia, udal zerbitzura urtero zuzenean zenbat bisita egiten diren aitzat hartuta, ezin da esan zerbitzua behar den guztietan ez denik eman. Bestalde, udal zentrotik Artxandara eraman ondoren, ordutegia luzatu egin da, hau da, egunero hiru ordu (10:00etatik 13:00etara). Edozelan ere, herritar kopuru esanguratsuak sarbide-mugen inguruko demanda egingo balu, udalak udal zerbitzuko aukeren arabera zerbitzuaren ordutegia luzatzeko aukera baloratu ahal izango luke edo beste neurri osagarri batzuk ezarri. Horren ildotik, web orrialdearen bitartez ematen den zerbitzua animaliak jasotzeko zentzora sartzeko aukera ordezkatzeko ez duen neurri osagarria da.

Bestalde, animaliak zaintzeko bulegoetara bertako langileak ez diren pertsonak ez sartzeko udal arrazoiak justifikatuta daudela ulertu da. Dena den, neurri hori ez da oztopo egokitutako espazio publikoetan animaliak erakusteko. Halaber, gune zoologikoak kontrolatu eta ikuskatzeko zerbitzua foru administrazioei dagokiela adierazi behar da.

Edozelan ere, udal zerbitzuak, kasu zehatzetan, animaliak defendatzen dituzten elkarte jakinak bertara sartzeko aukera balora zezakeen, betiere, instalazioen egoera ezagutzeak zerbitzua oztopatzen ez duenean.

3. Adoptatzaileei animaliak emateko prozedurari dagokionez, ez dago jasota horretarako araututako prozedura bat dagoenik. Erabilitako praktika eskaera kopurua jasotako animaliekin elkartzean datza, eskatzaileen egoitzari lehenetsunak eman gabe.

Udalak emandako datuekin bat, esan behar da eskatzaile eta adopzio kopurua jasotako animalien baima txikiagoa dela. Horregatik, abandonatutako animaliak adopzioan emateko aukera neurri zorrotzagoak – adibidez, animalien eutanasia- saihesten edo murrizten dituen praktika positiboa da. Horrek ez du esan nahi pertsonak kontzientziatu eta arduratuko dituen prebentziozko neurriak bilatu behar ez direnik, hain zuzen, animaliak behar bezala eta modu arduratsuan edukitzeko.

Animaliak adoptatzeko udal kudeaketak pertsonak edo elkarteak sartzeko aukera eman behar du, beste erkidegoko edo estatu batzuetako adoptatzaileen sarbidea eragotzi edo mugatzen duten baldintzak ezarri gabe. Europar Batasunean askatasunez joan-etorrian ibil daiteke, saltzeko xederik gabeko etxeko animaliak eramateko animalien osasun exijentzia batzuei jarraiki. Egoera hori 998/2003 EE araudian ezarrita dago. Horren bidez, kasu horietan aplikatu daitezkeen arau zoosanitarioak onartzen dira.





Adoptatutako animaliak kontrolatu eta identifikatzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak izateari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretua eta Bilbon animalien edukitzea eta babesarautzen duen ordenantzako 5. artikulua aipatu behar ditugu. Animalien jabeek animaliak mikrotxip baten bitartez jaio edo eskuratu dutenetik identifikatzeko prozedura ezartzen dute xedapenok. Albaitari gaituak egin behar du identifikazioa. Aipatu identifikazioak kartila eta identifikaziozenbakia edukitzea eta animalien identifikaziorako erregistro orokorrean (AIEO) izena ematea esan nahi du.

Animaliaren titulartasunari buruzko datuak aldatzen badira edo EAetik kanpo behin betiko eramatearen ondorioz baja ematen bada, animalien identifikaziorako erregistro orokorrari jakinarazi behar zaio. Erregistro horrek izen-ematea balioetsiko du eskatutako agiriaren aurkezpena osatu ondoren.

Animalien identifikaziorako erregistro orokorrari errolda-identifikazioan egindako aldaketak ez jakinaraztea arau-hauste arina izango da, animaliak babesteari buruzko legearen 27. artikuluko ezarpenekin bat etorritik. Aipatu erregistroan egin beharreko aldaketen ardura animalia jabe berriari dagokio.

Beste autonomia erkidegoetara edo estatu kideetara eramanez gero, identifikazioaren kontrola, kasuan kasuko erregistroan izena ematea eta titulartasun aldaketak animalien egoitza eskumena duten administrazioek burutuko dituzte. Animaliak erregelamendu komunitarioan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, agintaritza eskudunak jatorrizko herrialdera birbidal dezake. Kontrol-sistema hobetze aldera, Bilboko Udalak, elkarteak hala eskatuta, TRACES sistema gehitu du. Europako Batzordeak gaitutako kudeaketarako tresna horren bidez zerbitzari zentral batean Europar Batasuneko estatu kideen artean egindako animalien trukeei buruzko albaitari-informazio guztia sar daiteke.

Gauzak horrela, Bilboko Udalak adierazi du zorrozki bete duela legeria, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko animalien identifikaziorako erregistro orokorrean emandako altak eta bajak erregistratzeari dagokionez.

Hortaz, uste dugu animalien adopzioa abandonatu eta udal zentroetan jasotako animalien ongizatea bermatzen duen neurri positiboa dela. Emateko prozedura publikoki eta modu gardenean egin behar da eta, hala badagokio, jasotako animalia bat adoptatu nahi duten pertsonen artean –bizilekua edozein dela ere– norgahiagoka askeko prozeduraren bidez. Administrazioek ezin dizkiote mugak jarri animalien adopzioari. Nolanahi ere, administrazioak arduratuko dira animaliak identifikatzeko kontrola erregulatzen duen araudia bermatzeaz eta baita lekualdaketetan osasun baldintza egokiak daudela ziurtatzeaz ere.





4. Aztertu beharreko beste gai bat honako hau da: jasotzeko zentroaren udal erregistroan dauden agiriak ikusteko aukera. Udalak ez ditu datu horiek eman nahi, erregistroan bildutako datu pertsonalak (hala nola, izen-abizenak, animalien jabeen helbidea) datu pertsonalak babesten dituen abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutako mugen arabera direla ulertzeagatik.

Datu pertsonalak berriazko tratamendu baten mende daude, baita administrazioko erregistroak edo espedienteak osatzen dituztenean ere. Aipatu datuon artean pertsona fisikoei buruzko informazioa identifikatzeko aukera ematen dutenak barne hartu behar dira. Datu pertsonalak babesteko legearen arabera, datuen titularraren aurretiko baimena behar da hirugarrenek ikus ditzaten edo horiei eman dakizkien, prozeduran interesdunak direla alde batera utzita.

Datu pertsonalen barruan, jabeen izendapen datuak eta helbidea barne hartu behar dira, baita animaliak identifikatzeko digituak ere. Hala adierazi du Datuak Babesteko Espainiako Agentziak elkarte bati animalia jakinak identifikatzeko digituak eta jabeei buruzko beste datu batzuk emateari buruzko kontsulta batean (319/2008 txosten juridikoa). Datu horiek emateko, interesdunaren baimena behar da, datu pertsonalak babesteko lege organikoaren 11. artikuluekin bat etorritik.

Nolanahi ere, erakunde honen ustez, elkarteak badauden erregistroetako datuak ikusi ahalko lituzke, datu konfidentzialak aurretik berezita. Halaber, animaliak beste autonomia erkidego edo herrialde batzuetara ematen diren kasuei buruzko estatistika-informazioa bidal ahalko litzateke, betiere, aurretik egin ez diren azterlanak edo banakapenak egitea ez dakarrenean.

5. Azkenik, katuen kolonia bat sortzeko aukerari dagokionez, Bilboko Udala prest legoke elkarteak horren inguruan egindako proposamen bat aztertzeko.

Elkarteak katuen kolonia bat ezartzeko duen asmoaren helburua animaliak izateari buruzko ordenantzan bertan xedatutakoak eragin du, izan ere, 10.4. artikuluan dioenez:

“Udalak katuen koloniak sustatu ahalko ditu animaliak hil behar ez izateko. Kolonia horiek animalia talde kontrolatuak izango dira, behar bezala antzutu, eta irabazteko asmorik gabeko erakunde eta entitateen ardurapean egongo dira eremu publikoetan”.

Erakundeak bidalitako informazioan udalari aurkeztutako proposamena azaltzen da, kaleko katuen koloniak kontrolatzeko eta antzutzeko plana barne. Planaren helburua abandonatutako katuak ugaritu ez daitezen





ziurtatzea da, eta baita abandonatutako animalien populazioa kontrolatzea ere. Erakundeak dagoeneko abian jarri du esperientzia hori inguruko beste herri batzuetan, Getxon edo Basaurin adibidez, eta beraz, lortutako emaitzak ebalua daitezke.

Zentzu horretan, gure ustez Bilboko Udalak sustatu beharko luke elkarteak aurkeztutako planaren ikerketa eta, egokia bada, katuen kolonia bat abian jartzea Bilboko udalerrriaren barnean.

6. Erakundeak proposaturiko gai nagusien inguruan aurretik egindako hausnarketei jarraiki, honako ondorio hauetara heldu gara:

- Abandonatutako animaliak biltzeko udal zentroaren kudeaketaren bidez, interesdun guztiak egunean hiru orduz sartu ahalko dira bertan. Zerbitzu hori teknologia berriak erabiliz ere eskaintzen da, izan ere, web orrialde baten bidez ere udalak eskaintzen duen zerbitzura sar zaitezke.

Zerbitzuaren beharrak direla eta, zaintza-zentroaren zenbait eremutara sartzea mugatu da, baina ez da oztoporik jarri prestatuak dauden eremu publikoetan animaliak erakusteko.

Nolanahi ere, gune zoologikoen kontrola eta ikuskapena foru administrazioei dagozkie.

- Erakunde honetan neurri onuragarritzat jotzen dugu animaliak hartzea, abandonatutako animaliak hiltzea saihesten baitu. Entrega-prozedura publikoki eta modu gardenean egingo da, eta dagokionean, bildutako animalietariko bat hartu nahi dutenen pertsona guztiak norgehiagoka askean parte hartuko dute, haien egoitzarengatik gutxietsi gabe. Nolanahi ere, administrazioak arduratuko dira animaliak identifikatzeko kontrola erregulatzen duen araudia bermatzeaz eta baita lekualdaketetan osasun baldintza egokiak daudela ziurtatzeaz ere.
- Animaliak biltzeko zentroen kudeaketa identifikatzeko erregistro publikoek datu pertsonaletarako duten sarbidea dela eta, interesdunek euren baimena eman beharko lukete izaera pertsonaleko datuen babeserako, araudiak 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hori guztia, dena den, azaldutako aurrekari eta hausnarketa juridikoak ikusita; otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:





3/2010 IRADOKIZUNA, ekainaren 16koa, Bilboko Udalarri egina

Abandonatutako animaliak jaso eta adopzioan emateko udal-zerbitzuak animaliak babesteko zenbait elkarte une jakin batzuetan bertara sartzeara arau lezake, elkarte horiek zerbitzuaren funtzionamendua eta instalazioen egoera ezagut dezaten.

Etxeko animaliak zaintzeko udal-erregistroen organo titularrak erregistroan dauden datuetara sartzeara baimen dezake. Eskatzaileak legezko, banakako edo taldeko interesa adierazten badu, datu pertsonalak bereiziko dira. Era berean, administrazio zerbitzuaren eskuetan dagoen informazio estatistikoa bidali ahalko zen, animaliak beste autonomia erkidegoetara edo beste herrialde batzuetara ematen diren kasuei buruzkoa.

Bilboko Udalak elkarteak aurkeztutako plana sustatu beharko luke, Bilboko udalerraren barnean katuen kolonia bat jar dezan eskatzen duena, eta, bideragarria bada, abian jarri beharko luke.

